



## «Giro ederrean», azken txanpara iritsi da Kultur Hamabostaldia

**OREXA** ▶ Parte-hartze handia izan dute asteburuko ekitaldiek; gaur gauean, Pello Zubiriaren hitzaldia ▶ 6



50 lagun inguruk hartu zuten parte igandean Uitz-i-Orexa ibilaldian, eguraldi apartarekin. HITZA

TOLOSA ▶

### Xake azkarreko IV. Urdiña Txiki saria, hilaren 13an

Antolatzaileek xake zaletu guztiei  
dei egiten diete parte har dezaten ▶ 2

BALIARRAIN ▶

### Hamalau etxebizitza eraikitzeko lanek aurrera darraite

Urte amaierarako  
bukatuta egotea  
espero du Udalak ▶ 4



Lanak, atzo. M. SAN SEBASTIAN

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

### Sakabanaketa eta haren ondorioak salatu dituzte

Bihar iluntzean elkarretaratzea  
eginen dute Leitzan, besteak beste ▶ 7

elkar-ekin gaude



SASKIBALOA ▶

# «Merezitako» porrota jaso du TAKE taldeak, aurtengo bigarrena

Bilbon jokatu zuen igande goizean, eta 80 eta 69ko emaitzarekin amaitu zuen; bosgarren da sailkapenean



2005-2006 denboraldiko TAKE saskibaloitza taldea osatzen duten mutilak, Senior Mailan. HITZA

NOELIA LATABURU

Ez zuen garaipena etxera ekar-  
terik izan TAKE saskibaloitza tal-  
deak pasa den igande goizean  
Bilbora eginitako bisitaren oste-  
an. Amaierako markagailuak  
horrelakorik islatzen ez ba-  
zuen ere (80-69), partida «pe-  
nagarria» egin zuten Tolosako  
mutilek Patronato taldearen  
aurka.

Ilusioa ez zitzaion falta, baina  
ez zuten joko ona eskaini. Kike  
eta Gazte antolatzaileen bajak  
zituen taldeak, eta nabaritu ere  
nabaritu zituzten gainontzeko-  
ek. Arazorik handiena defen-  
tsan izan zituzten, «zulo asko»  
agertu baitziren zona barruan;  
aurkariek bikain aprobetxatu  
zituzten hutsune hauek alde  
lortzeko. Lehen laurdenaren  
erdirako zazpi puntuko alde

PATRONATO ▶ 80

TAKE ▶ 69

**TAKE.** Haserako boskotea:  
Mikel Ibañez (1); Iñaki (8);  
Fernando (25); Haritz (7);  
Joseba (12). Aldaketak:  
Ander (0), Alberto (0), Iñigo  
(3), Jon (8) eta Kaiet (5).

lortuta zuen talde bilbotarrak.  
Tolosako enreakzio txiki bat  
ailegatu zen horren ostean,  
baina ez zuen ezertarako balio  
izan. Bigarren laurdena bide  
beretik joan zen, eta bizkaitar-  
rrek 14 tantoko alde eskuratu  
zuten. Tolosarrak gaizki aritu  
ziren, defentsan zein erasoan,  
hutsune handiak utziz eta go-  
ran asmatu ezinik. Gureak as-  
matu ezin, eta bilbotarrek, haa-

tik, dena bere alde izan zuten;  
horrela, hirugarren laurden-  
an norgehiagokako alderik  
handiena lortu zuten, 60 eta 38,  
hain zuzen ere. Partida amaie-  
rarako, 10 hiruko sartuta ama-  
itu zuten talde bizkaitarrak.

Etzi, larunbata, porrot honi  
buelta emango dioten itxaro-  
pena dute taldekideek. Ez dute,  
ordea, batere lan erraza izan-  
go; izan ere, Interautonomika  
Mailako talderik indartsuena-  
ren bisita jasoko du etxean TA-  
KEK, Jorge Fernandez Cerami-  
cas, hain zuzen ere. Zaletuen  
arnasa espero dute harmaile-  
tan taldekideek, orain dela urte  
batzuk TAUko lehen taldean  
aritzen zen Jose Luis Ortun izan  
nagusia duen taldeari aurre  
egin ahal izateko. Usabalen  
izango dute hitzordua, 18:00-  
etatik aurrera.

ZESTA-PUNTA ▶

## Astebururako partida gehiago Beotibarrek

Donostiako Karmelo Baldan eta Beotibarren jokatu dituzte, kadeteetan eta nagusietan

N. LATABURU

Elkarteen Arteko Txapelketa-  
ko jardunaldi berria jokatu-  
ko dute asteburu honetan Beoti-  
barreko jokalariek. Guztira, lau  
partidatan ariko dira.

Bihar, Beotibarren, Mujika-  
Telleria kadeteak Izaguirre-Bil-  
darratzen aurka lehiatuko  
dira, 19:30ean, biak ala biak  
Beotibar taldekoak. 20:00-  
etan, berriz, Beotibarreko Arte-  
txe-Garmendia nagusiek Do-  
nostia Jai Alaiakoak izango di-

tuzte aurkari, Beotibar pilota-  
lekuan.

Etzi, larunbata, Karmelo  
Balda pilotalekua izango da bi  
norgehiagokoen eszenatoki,  
Kutxa Sariko Txapelketa hon-  
etan. 16:00etan, Orrantia-  
Mujika Beotibar taldeko na-  
gusien bikotea Zumaiaren  
aurka ariko da; goizean, be-  
rriz, 11:30ean, Trabanzos-Re-  
zola nagusiek osatzen duten  
bikoteak Donostiako Jai Alai  
taldea izango du aurrez aurre,  
pilotaleku berean.

ARETO FUTBOLA ▶

## Valentzia mendean hartu du Hegoaldeak

6 eta 2ko markagailua lortu zuen talde tolosarrak, Ordiziako Majori kiroldegian

N. LATABURU

Abesbatza Lehiaketa zela  
eta, Ordiziako Majori kirolde-  
gian jokatu zuen, iragan la-  
runbatean, Hegoaldeak, Va-  
lentiaren aurka. 6 eta 2ko  
markagailuarekin, denboral-  
diko hirugarren garaipena  
lortu zuen talde tolosarrak.  
Vicky (3), Edurne (1), Amaia  
(1) eta Sara (1) izan ziren go-  
leatzaileak. Partida ona egin  
zuten neskek, eta lehen za-  
tian inongo arazorik gabe  
mendean hartu zuten Valen-  
tziako taldea.

XAKEA ▶

## Urdirña Txiki Saria jokatu dute, xake azkarrean

Hilaren 13an izango da Urdirña Txiki elkartearen; antolatzaileek parte hartzera deitu dute

N. LATABURU

Datorren igandean, hilaren  
13an, 09:30ean hasita, IV Ur-  
dirña Txiki Saria jokatu  
dute Tolosan. Xake azkarre-  
an izango da, jokalaria eta  
partida bakoitzeko bost mi-  
nutura. Jokatu nahi duenak  
igande goizean Urdirña Txiki  
elkartera joan besterik ez du  
hasiera ordua baino zertxo-  
bait lehenago. Antolatzaileek  
txapelketa honetan parte har-  
dezaten dei egiten diete Tolo-  
sako eta inguruko xake zale-  
tu guztiei.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ARETO FUTBOLA ▶

# Liderraren kantxan ezin izan du Laskorain taldeak punturik lortu

Ohiko jokoa eskaini zuten horitxoek larunbatean, baina 4 eta 2 galdu zuten Basaurin Piti Pascualen aurkako neurketa

**IRATXE ETXEBESTE**

Horitxoek esku hutsik hartu behar izan zuten itzulerako autobusa joan den larunbatean Basaurin. «Txapelketako lider ahaltu eta aberatsaren aurka 4 eta 2 erori ostean, aurpegiak ez ziren porrot arrunt baten ondoren ikusten diren horietakoak», adierazi dute Laskorain areto futbol taldeko kideek: «Baina patrikan, eta hori da balio duena azken finean, ez zegoen puntu arrastorik».

Bere ohiko jokoa eskaini zuten Laskorainek Artunduagako «kirolgune ikusgarrian», eta kokildu gabe, liderrari aurre egin behar zaien bezala jokatu zuten: zor zaien errespetua eta merezi duen ausardia edota anbizioa, «bi gazak ezkonduaz».

Eta horrelaxe aritu ziren ikastolakoak. Piti Pascual taldekoen joko kalitatearen aurrean sufriratu arren, ez zuten inongo unetan amore eman eta orokorrean tinko agertu ziren defentsan, eta kontraerasora nagusitasunez 3 vs. 2 eta 2 vs. 1 ateratzeko parada dezente izan zuten, gainera.

Izan ere, eta azken emaitzak besterik adierazten duen arren, partida gol aukera askokoa izan zen, eta horitxoek penarik handiena zera izan zen:

aurrealdean ez zutela aurrekoetan bezala asmatu. Hori, eta markagailuan beti atzetik joatea tokatu zitzaizela. Norgehiagoka, baina, azken unera arte egon zen irekita: 2 eta 1 zazpi minutu falta zirela, eta bi minutu falta zirela 4 eta 2koarekin hamar metrotako jaurtiketa bat izan zuten tolosarrek.

«Estatistikek beraiek adina gol aukera izan dugula diote, gehiago ez bada», aldarrikatzen zuten horitxoek neurketaren amaieran. «Baina estatistikak, saskibaloiko entrenatzaile jakintsu batek zioena gogoratu, hondartzetako bikiniak bezalakoak dira: asko erakusten dute, baina interesgarriena ezkututzen», azaldu dute Laskorain areto futbol taldekoek egindako lanaren harira.

Saldias eta Telletxea beterranoek sinatu zituzten larunbatean Tolosako taldearen aldeko golak, «oraindik areto futbolearen gasolina asko gelditzen zaiela argi ipiniaz», esan dute

**PARTIDUA**

Liderrari aurre egin behar zaien bezala jokatu zuten: zor zaien errespetua eta merezi duen ausardia ezkonduz

bi jokalariren taldekideek. «Eta gasolina aipatzen dugula, ezin dugu ahaztu partiduko beste protagonista: Amatriain limousin gidaria». Neurketa sendoa osatu zuen Amatriainek Basaurin, eta taldearen gidaritza berehala hartuko duela dirudi, «asteburuetako gauetan bere limousinarekin egiten duen bezalaxe. Galdetu bestela Tolosaldeko neskatilei», diote Laskoraingo jokalariek, ohi duten ironiarekin.

Irabazterik izan ez, baina ikur horitxoa «merzei bezain altu» utzi zuten larunbatean Basaurin Javi delegatuak, Egizabal entrenatzaileak eta Dommentxe, Telletxea, Yustos, Saldias, Barriola —hasierako bostekoa—, Alonso, Gil, Amatriain, Calixto, Murti eta Arregi jokalariek.

**Beheko taldeak, hobeto**

Azkenik, azpimarratu behar da Laskorain areto futbol taldearen harrobian «gauzak askoz hobeki» joan zirela: «*Joselu Mourinho* ezizenez ezagun den Jorge Alonsoren taldeak 4 eta 3 irabazi zion Inter Intxaurrendoren beheko taldeari; eta Xabier Muruaren taldeak berriz ere tinko dirau lidergoan, 7 eta 2 hartu baitzuen mendean Herriko Dinamo taldea».

IGERIKETA ▶



Carlos Peña tolosarra, Guinness saiakera egiterakoan. NEREA LIZARTZA

## Carlos Peñak erronka berriari egingo dio aurre

Sella ibaia zeharkatuko du larunbat honetan bosgarren aldiz, Arriondas zubitik irtenda

**I. ETXEBESTE**

Handia zen Carlos Peña igerilari tolosarrak azkenekoz lortu zuena: Usabal kirol eta aisaldi guneko inaugurazio ekitaldi ofiziala baliatuz, 24 orduz bizkarrez igerian aritzea. Bertako igerilekuan, 25 metro luzekoan, egin zion aurre erronkari irailaren 24tik 25era. Eta lortu egin zuen arazo txiki batzuk tarteko. Lortu egin zuen Guinness Errekorren Liburuan sartzea 48 kilometro eta 30 metro osatuta.

Bada proba hartakoa gogotik kendu ezinik, beste erronka berri bati egingo dio aurre asteburu honetan. Larunbatean, Asturiasera (Espainia) joango da, bertako Sella ibaia bosgarren aldiz zeharkatzeko. Arriondas izeneko zubia eta kostaldean dagoen Ribadese-

lla herria banatzen dituzten 19 kilometroak bizkarrez igerian zeharkatzen ahaleginduko da Carlos Peña. Larunbatean, hilak 5, 11:30ean hasiko du saioa tolosarrak Arriondas zubitik.

«Urte sasoi honetan ohikoak izaten diren baldintza klimatologiko gogorrak eta uraren tenperatura hotzak» izango ditu igerilariak saiakera berri horretan oztupo nagusi. Jakin badaki ez duela helburu erraza buruan. Baina, bere hitzetan, «ohituta» du gorputza egoera kaskar horietara, eta, ildo horretatik, ez die arriskuei beldur handirik. Gainera, larunbateko Sella ibaia jaisuten duen bosgarren aldia izaki, ez du aparteko arazorik izango, aski ongi ezagutzen baititu Asturiaseko ibaiaren nondik norakoak. Ea bada.

**hitza**

# txokoa

lagunen

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honetekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

## BALIARRAIN ▶ HIRIGINTZA



Etxebizitza bifamiliarren lursailan lanak ia hasteko daude. M. S. S.



Urte amaierarako hirigintza lanak bukatuko dituztelakoan da Udala. MARTA SAN SEBASTIAN

# Oraindik ere, hankaz gora

Partzelen esleipena egina, hirigintza lanak urte amaieran bukatuko dituzte

MARTA SAN SEBASTIAN

Maiatzean hasi zituzten Baliarrainen 14 etxebizitza eraikitzeke hirigintza lanak. Bost hilabete pasatu ondoren, lanak

oraindik amaitzeko daude. Udaletik argitu dutenez, «urte bukaerarako hirigintza lanak amaituko dituztela uste dugu, eta agian lehenago amaitzea ere posible da».

Hirigintza lanak bukatu baino lehen, Baliarraingo Udalak partzelen esleipena egin zuen. Dagoeneko partzela guztiek jabea badute, baina oraindik batzuk eskriturak egiteko dituzte. Udalak Buletin Ofizialean argitaratu zuen maiatza aldera etxebizitzak eraikitzeke partzelak esleitzeko deia.

Interesa zutenek udaletxean izena eman behar zuten joan den maiatzaren 3a baino lehen. Ondoren, puntuazio sistema erabili dute. Baliarraingo herritarrek baldintza pleguetan lehenetasuna izan dute; hala, puntu gehiago lortzeko aukera izan dute. «Herritarrei mesede egin nahi izan diegu eta, horretarako, puntuazio sisteman lehenetasuna eman diegu», argitu dute Udaletik. Az-

kenik, behin betiko zerrendan herritarren kopurua eta herritarrak ez diren kopurua bereztua da.

## Epeak

Guztira, 14 etxebizitza eraikitzeke partzelak egiten ari dira; horietatik 12 familia bakarrek izango dira, eta beste bi, aldiz, bifamiliarrak izango dira. Ziurra ez bada ere, Malkor izena jarriko diote etxebizitzak eraikiko dituzten kaleari.

Lursailen jabeek gehienez bi urteko epea dute etxebizitzaren proiektua egiteko. Ondoren, beste hiru urteko epea izango dute proiektu hori gauzatzeko. Bost urte horien ondoren, beste hiru hilabeteko epea izango dute etxebizitzaren jabeek Udalean habilitazio baime-na eskuratzeko. Beraz, guztira bost urte eta hiru hilabete dituzte gehienez etxebizitzaren proiektua egin eta bertan bizitzaren jartzeko.

## AMEZKETA ▶

### Arkupe dantza taldean parte hartzeko aukera

Amezketako Arkupe dantza taldean parte hartu nahi duenak oraindik ere aukera badu. 2005 urtean sei urte edo gehiago betetzen dituen edozein neska edo mutilak parte har dezake. Animatzen direnak Euskal Herrian aspalditik dantzatu izan diren dantzak ikasiko dituzte, gure folkloreaken zati bat jendarean erakutsiz. Interesatuak 943 65 54 97 edota 943 65 14 93 telefono zenbakietara deitu beharko dute informazioa eskuratzeko.

## ALEGIA ▶

### KZgunean tutorearen bisita izango da

Bihar, 16:00etatik 20:00etara, KZguneko tutorearen bisita izango dute. Zalantzak argitu edota galderarik duten erabiltzaileei bisita horretaz baliatzea gomendatzen diete. Gainera, egun berean *Sinadura elektronikoa* mintegia jorratuko dute, 17:00etatik 19:00etara. Saio hau Alegia-ko KZgunean egiten ari diren mintegien jarraipena izango da. Aurrera begira, KZguneko tutorearen hurrengo bisita hilaren 18an izango dela jakinarazi dute.



**DAGOENHO ABIAN DA #118. PROIEKTUA.  
FRAISORO ERAIHINA ZIZURHILEN.**

Inbertsioa: 451.600 euro

Proiektu berezia pertsona berezientzat. Gure adinekoek, izan dezaketen etorkizunak hobetuz, izan dezaketen aparteko inbertsio planaren barruan sarrera doan errealitate da. Vurratandi, Tolosaldeko Usabel Arodegia, Leidor berria edo Rasteasuho Ispionariak proiektua bezalaxe. Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.

**Aparteko Inbertsio Plana  
Tolosaldean ere bai.**

Aparteko Inbertsio Plana 2004-2007



Plan extraordinario de Inversiones 2004-2007



Ayuntamiento de Tolosa  
Euzko Leizaldeko Hitza

## IBARRA ▶

## Garaipen garrantzitsua ibartarrek Gasteizen

Azken segundoetan sartutako golen bidez eman ahal izan zion buelta partidari

## ERREDAKZIOA

Partida zirrargarria izan zen Gasteizko Judimendi kiroldegian Ibarra areto futbol taldeak eta Deportivo Alaves UPV Alavak larunbatean jokatu zutena. Izan ere, «berdintasunak nagusituriko partida izan zen», Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak azaldu bezala.

Ibarra izan zen nagusi norgehiagokaren hasieran, baina, hala ere, gasteiztarrek izan ziren lehenak markagailua estreinatzen; hain zuzen ere, Deportivo Raul jokariak Sanz atezainaren aldaratzeaz probestuta, baloia sare barrura sartu zuenean. 1-0ekoa zen. Ibarraok, ordea, lanean gogor jarraitu zuten, eta berehala buelta eman ahal izan zioten markagailuari. 15. minutuan izan zen: Hautsik baloia lapurtu eta Maurori pasa zion, eta ibartarrek gola egin zuten.

Ibarra partidaren jaun eta jabe bazen ere, etxeko taldea aurretik jarri zen berriro. Raul jokariak kórner jaurtiketa egin eta ezustean harapatu zuen Sanz atezaina, 2-1ekoa eraginez. Hala, atsedendira emaitza horrekin joango zirela zirudienean, Pradosek Hautsiri pasatu eta honek 2-2koa egin zuen. Bigarren zatian gasteiztarrek indartsuago atera ziren, eta nagusitasunari dagokionez partida berdindu egin zen. 29. minutuan Ibarra jarri zen aurretik Sinoek eginiko gol baten ondorioz. Hurrengo jokaldian laugarrena egiteko aukera polita izan zuen Ibarra, baina azkenean gasteiztarrek izan ziren berdinketaren gola egin zutenak, eta, gainera, 4-3koa etorri zen ondoren, gasteiztarren eskutik. Ibarra ez zuen etsi, eta berdindu egin zuen partida; eta amaitzeko 5 segundo falta zirenean, Pradosek 4-5ekoa egin zuen. Ibarra beste behin ere kontzentrazioa eta seguratasuna erakutsi zuen.

Bestalde, jubenilen taldeak 10-4eko emaitzarekin irabazi zuen Aloña Mendi taldearen aurka.

## OREXA ▶ KULTURA

# «Giro ederrean» ari dira burutzen Kultur Hamabostaldia

Jende ugari ari da kultur ekitaldietan parte hartzen; gaur hitzaldia eta etzi pailazoak, afaria eta erromeria izango dira



Lakrikun taldearen *Greban gaude* antzezilana izan zuten ikusgai. HITZA



Uitzi-Orexa ibilaldiaren ondoren herri bazkaria egin zuten. HITZA



Eraikuntzaren inguruko egungo egoeraz egin zuten bertso antzerkia Hernaniko bertso eskolakoek. HITZA

## IÑIGO TERRADILLOS

Jende ugari ari da parte hartzen aurtengo Orexako Kultur Hamabostaldian. Hala, ostiralean udaletxeko ganbarara joan zirenek ederki igaro zuten Lakrikun taldearen antzerkia-ekin. Larunbatean, 50 lagun inguruk egin zuten ohiko Uitzi-Orexa ibilaldia, eta jende andana ere elkartu zen ondorengo bazkarian. Astelehenean, berri, bertso antzerkia berezia izan zuten herritarrek ikusgai Hernaniko bertso eskolaren eskutik. Gaur egungo eraikuntzaren egoera gaitzat hartuta, bertsolaritza eta antzerkia batu zituzten, ironia eta umore puntuarekin.

Bestalde, gaur Pello Zubiriaren hitzaldia izango da. Etzi pailazoak izango dira gaztetxoentzat arratsaldean, eta gauean afaria—sarrerak, 20 euro helduentzat, eta haurrentzat 15 euro—; eta, ondoren, DJ Bullen eskutik erromeriaz gozatzeko parada izango da.

## EGITARAUA ▶

## GAUR

**21:30.** *Petrolizko etorkizuna*, Pello Zubiriaren eskutik.

## ETZI

**16:30.** Korri, Xalto eta Brinko pailazoen eskutik *Show berria prestatzen* emanaldia.

**21:00.** Herri afaria. Ondoren, erromeria DJ Bull-en eskutik.

## IBARRA ▶

## Odol ateratzea izango da gaur osasun etxean

Ibarrako odol emaleen elkarteak jakinarazi du odol ateratze kanpaina egingo duela hilabete honetan. Hala, gaur 19:00etatik 21:00etara izango da aukera, Ibarrako osasun etxean.

## BELAUNTZA ▶

## Hilaren 8an hasiko da yoga ikastaroa

Belauntza Udalak antolatuta, Kultur Etxean yoga ikastaroa egingo dute azaroan, abenduan eta urtarrilean, asteartean, 20:00etatik 21:30era. Bertan erlaxazioak, estiramenduak... landuko dituzte. Hilero 20 euro ordaindu beharko dira, eta izen-ematea Kultur Etxean edo 943 67 00 20 telefono zenbakian egin ahal izango da, hilaren 4a baino lehen. Datorren asteartean, hilaren 8an, emango diote hasiera ikastaroari.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernaldea.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEITZA ▶ FUTBOLA

# Motel, baina puntuak etxe alderako

1 eta Oko markagailuarekin, Aurrera garaile atera da Beti Kozkorrekin

JAIONE ASTIBIA

Ez zen partidu ikusgarria suertatu Santuguzinekoan jokatu zutena, baina «garrantzitsuen» puntuak lortzea izanik, halaxe egin zuten leitzarrek. Beste hiru gehituta, 14 punturekin, sailkapeneko bosgarren lekuan dago Aurrera taldea.

Asteartean Lekunberriko Beti Kozkor taldea izan zuten aurrez aurre Arkixkilen, eta 1-0 izan zen azken emaitza. Lehendabiziko zati motela egin zuten bi taldeek, ez batak eta ez besteak ez zuten jokaldi politik egin, ez zuten gol aukera garbi-

rik sortu; kanpokoak ere berdinketaren bila etorriak izaki, ez zuten presio handirik eragin. Hori bai, izan ziren aukera apurrak haiek sortutakoak izan ziren, eta etxeko atezainaren geldialdiak erabaki orrak izan ziren, Ibai Elizalderenak, alegia, azken hiru partidutan Abuzaren ordezkariak jokatzeko egokitu zaio eta. Ikusleak atsedenean golik ikustekoak ziren.

Bigarrenean zertxobait hobetu zuten bi taldeek, baina Beti Kozkor nabarmenez. Eta haiek agintea hartzen ari zirela zirudien garaian etorri zen etxekoen gola, partiduko baka-



Antton Abruzza, ezkerrean, eta Ibai Elizalde beroketa ariketak egiten. Josu Urkiola falta da. JAIONE ASTIBIA

rra ere izan zen zena, eta hiru puntuak etxean gelditzea eragin zuen: partiduko 70. minutu aldera, kornerra atera eta aldaratzearen ondorengo jokaldi batean, Iñigo de Karlosek bidali zuen baloia sareetara mantso-mantso, 1 eta Okoa eginenez. Golaren jokaldia «nahasi samarra» izan zela adierazi zuten atzokoen taldeko arduradunek ere, «aldaratzearen ondoren haiek jokoz kanpo eskatu zuten, eta epaileari begira zeuden bitartean sartutakoa», argitu zuten.

Leitzarren golaren ondoren, Beti Kozkorrek erasora jo zuten,

baina ero-eroan, prestatu gabe eta jokalarien arteko koordinazioz gabe ia; behin eta berriro berdinketaren bila saiatu ziren, baina emaitzik ez zuten lortu. Etxekoak, berriz, emaitzari eutsi zioten, atzean jokatu eta atea babestuz.

Oro har «partidu motela» izan zela zioten ordezkariak: «Oso ongi jokatu gabe irabazitako partidua», zehaztu zuten. Baina jardunaldi honetan ere hiru puntuak bertan gelditzea erdietsi zuten. Horregatik konforme ageri ziren, «sailkapen bost talde daude goian, oso alde gutxirekin; gainerakoeki-

ko tartea dezentekoa dute. Gu hortxe gaude goiko boskotean. Beraz, ongi goaz», baloratu zuten, erabat baikor.

Hain justu, hurrengo jardunaldian, laugarren lekuan dagoen taldearekin jokatu beharrek dira: Baztanen aurka. Honen 15 puntu ditu, Aurrerak baino puntu bakar bat gehiago. Larunbatean dute partidua, oraindik zehaztekoa dagoen orduan, Elizondon. «Partidu zaila izanen da, goian dabilen taldea da-eta Baztan», zioten: «Ongi jokatu eta ahal dela punturen bat ekartzera joanen gara, noski».

PRESOAK ▶

# Sakabanaketaren salaketatik ondorioetara, hiru egun eskasetan

Altzuguren heriotza salatuz bilkura egin dute, Guardia Zibilaren isun mehatxua jasoz

J. ASTIBIA

Urriko azken ostiraleko elkarretaratzeak egin ziren han eta hemen lehengo 28ko iluntzean. Leitzan ere egin zuten, eta bertara 40 lagun baino gehiago bildu ziren, *Igor eta Eneko askatu*, *Euskal presoak etxera!* eta *Amnistia* zioten bi pankarta aurrean zituztela.

Hain zuzen ere, «EPPkari estatututako onartzea» eta «sakabanaketa politika salatzeko» izan zuten helburu hil horretako elkarretaratzeak ere, dispersioa «presoek beraiek eta euren senide eta lagunak zuzenean jasatzen duten gehitutako zigorra» dela adieraziz, «Euskal Herrian hainbat heriotz eragin» dituela baieztatuz batera. Egoera honen bukaera «gizarte guztiaren zeregina» dela adierazi zuten, eta zentzu horretan, gizarteko arlo desberdinei konpromisoak hartzeko dei egin. Horren isla, kul-

turako hainbat eragilek burututako geldialdia ere izatea, ostiralekoa.

Eta hala, handik bi egunera, aurrekoan salaketa zena, gertakari bihurtu zen, Berako Joxe Angel Altzuguren preso politikoa Soriako (Espainia) kartzelan hilk agertu baitzen astelehen goizean, urriaren 22an atxilotuta, betetzeko gelditze zitzaien kartzela-zigorren zatia osatzera, lehendabizi Iruñeara eta ostiralean bertan Soriara (Espainia) urrutiratua izan ondoren. Amnistiaren Aldeko Mugimenduek deituta, elkarretaratzeak egin zituzten herriz herri iluntzean, eta «sakabanaketa eta hori ezarritako Estatu espainiarra eta frantziarra» egin zituzten heriotz horren «arduradun». Jakiterik eman zuten, Altzugurenekin «gaixotasun psikikoak zituela jakin, kartzela arduradunek bazekiten arren, ez zioten zegokion laguntzarik



Sakabanaketak eragindako azken heriotza salatzeke egin zuten elkarretaratzea. Irudian, ostiralekoa. J. A.

eman, baizik eta urrutirago eraman eta han, gainera, barkatu egin zuten».

Horrela, deialdiarekin bat eginez, Leitzan beste 40 bat lagun elkartu ziren berriz ere zingola beltzdu ikurrinarekin batera, *Kotto espetxe politikak erahila* zioen pankartarekin. Honetakoan, Guardia Zibilaren auto bat hurbildu zen bertara, han bildutako elkarretaratzeak egiteko «autorizazioa» erakusteko eskatuz eta «hogei baino gehiago zaudete eta isuna izanen da», esan eta alde eginez.

Elkarretaratzearen ondoren, Etxerat-ek ostiralerako, bihar, beraz, egindako deialdiarekin bat eginez, iluntzeko 20:00etan egin asmo duten elkarretaratzearen berri eman zuten: *Kotto maite zaitugu; estatututako politikarekin euskal presoak Euskal Herrira orain!* izanen du lelo, eta Lopeneko atarian eginen dute; Amazabal institutuko ikasleak ere, beren aldetik, 11:00etan elkartuko dira, ikastetxeko atarian. Atzo egunkari honi jakinarazi ziotenaren arabera, «baimena eskatuta dago».

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** «Ehiza garaian erabat murgildurik gaude, eta eskualdean ere makina bat izango dira eskopeta hartu eta postuen atzean uso bandoen zain jardungo direnak. Ehizaren aldekoa hala kontrakoa zara? Zergatik?». Sartu gure web orrian eta eman zure iritzia gai honen inguruan.

